JUNTAS GENERALES DE ALAVA

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

SUPLEMENTO
al Boletín Oficial
del Territorio
Histórico de Álava

GEHIGARRIA
Araba Lurralde
Historikoaren
Aldizkari Ofiziala

71.zk. | 2001eko ekainaren 22a, ostirala | Viernes, 22 de junio de 2001 | nº 71

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**4.004**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2001eko ekainaren 13an egindako Osoko Bilkuran, honako Foru Araua onartu zuten:

10/2001 FORU ARAUA, EKAINAREN 13KOA, ARABAKO BILTZAR NAGUSIEN IHARDUNBIDEKO ARAUDIA ALDATZEN DUENA.

1. artikulua: 32. artikulua honela erredaktatua geratzen da:

“Kideren bat edo kide batzuk banantzearen ondorioz Askotarikoa ez den Talde batek hiru Prokuradore izateko baldintza betetzeari uzten badio, Biltzarkide Talde bera izaten jarraituko du Biltzar Nagusietako agintaldia amaitu arte, baldin eta jatorrizko kideen kopuruak gehiengoa izaten jarraitzen badu”.

2. artikulua: 38. artikuluko bigarren paragrafoa honela erredaktatua geratzen da:

“Arabako Biltzar Nagusietako Mahaia Lehendakariak, Lehendakariordeek eta Idazkariek osatuko dute. Lehendakaritzaren proposamenaren bidez Mahaiak izendatutako Legelariak lagundu eta aholkatuko du”.

3. artikulua: 38. artikuluaren hirugarren paragrafoa honela erredaktatua geratzen da:

“Arabako Biltzar Nagusietako Mahaiak izendatuko duen Ganberako Legelariari dagokio Idazkaritza Nagusiaren Zuzendaritza, eta Zerbitzuen Buruzagi gisa, Lehendakariaren bidez erantzun beharko du organo honen aurrean”.

Vitoria/Gasteiz, 2001eko ekainak 14.– Lehendakaria, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## JUNTAS GENERALES DE ALAVA

**4.004**

Las Juntas Generales de Álava, en Sesión Plenaria celebrada el día 13 de junio de 2001, aprobaron la siguiente Norma Foral:

NORMA FORAL 10/2001, DE 13 DE JUNIO, DE MODIFICACIÓN DE REGLAMENTO DE LAS JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA.

Artículo 1º.- El artículo 32 queda redactado de la siguiente manera:

“Si como consecuencia de la separación de alguno o algunos de sus componentes, un Grupo, distinto al Mixto, dejara de reunir el requisito de tres Procuradores, continuará actuando como tal Grupo Juntero hasta la finalización del mandato de las Juntas Generales siempre que conserve la mayoría numérica de sus componentes originales”.

Artículo 2º: El párrafo segundo del artículo 38 queda redactado como sigue:

“La Mesa de las Juntas Generales de Álava estará compuesta por el Presidente, Vicepresidentes y Secretarios. Estará asistida y asesorado por un Letrado designado por la Mesa a propuesta de la Presidencia”.

Artículo 3º: El párrafo tercero del artículo 38 queda redactado como sigue:

“La Dirección de la Secretaría General corresponderá a un Letrado de la Cámara que será nombrado por la Mesa de las Juntas Generales y que, como Jefe de Servicios, responderá ante este órgano, a través del/la Presidente/Presidenta”.

Vitoria-Gasteiz, a 14 de junio de 2001.– La Presidenta, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**4.005**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2001eko ekainaren 13an egindako Osoko Bilkuran honako Foru Araua onartu zuten:

11/2001 FORU ARAUA, EKAINAREN 13KOA, PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN FORU ARAUAN ETA NEKAZARITZAREKIN LOTUTAKO ZERGA NEURRIEI BURUZKO FORU ARAUAN ALDAKETAK EGITEN DITUENA.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren 9.u) artikuluak xedatzen duenez, salbuetsita daude zerga horretatik “Foru Aldundiak bere nekazaritza eta abeltzantza-politikaren bitartez esleitzen dituen laguntza edo kalte-ordainen ondorioz agerian gelditzen diren errenta positiboak”, zehaztuko den zenbatekoan.

Xedapen hori garatu ahala beteko da edukiz. Horrela bada, xedapen orokor honen bitartez, Perstona fisikoen Errentaren gaineko Zergatiak salbuetsita geldituko diren laguntzak zehazten dira.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**4.005**

Las Juntas Generales de Álava, en Sesión Plenaria celebrada el día 13 de junio de 2001, aprobaron la siguiente Norma Foral:

NORMA FORAL 11/2001, DE 13 DE JUNIO, DE MODIFICACIÓN DE LA NORMA FORAL DEL IMPUESTO SOBRE LA RENTA DE LAS PERSONAS FÍSICAS Y LA NORMA FORAL SOBRE MEDIDAS FISCALES RELACIONADAS CON LA AGRICULTURA.

El artículo 9.u) de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, señala que están exentos de este Impuesto “las rentas positivas, en la cuantía que se establezca, que se pongan de manifiesto como consecuencia de la percepción de ayudas o indemnizaciones señaladas por la Diputación Foral, resultantes de su política agraria y ganadera”.

Esta disposición adquiere contenido en la medida que se desarrolle. A tal fin, y mediante la presente disposición general, se procede a señalar las ayudas que van a quedar exentas del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Beste alde batetik, komenigarria jo da nekazaritza, abeltzantza edo baso-jardueretara atxikitako lursailak eskualdatzen dituzten zergadunek, baldintza jakin batzuk betez gero, honako aukera hau egin ahal izan dezaten; jarduera horietara atxikitako elementuak besterentzearen araubide ala jarduera horietara atxiki gabeko elementuen besterentzearena aplikatzea, alegia.

1. Artikulua.- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 16ko 35/1998 Foru Araua aldatzea.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren 9. artikuluko u) letra aldatzen da honen bidez, eta honela geldituko da idatzita:

"u) Salbuestsita egongo dira Nekazaritzako Bermerako eta Bideraketarako Europar Fondoaren kontura osoki edo zati baten finantzatutako laguntzak, haien zenbatekoaren %50, hain zuzen ere, beti ere laguntza horiek lehentasunezkotzat kalifikatuta dauden ustiategien bitartez eskuratu baldin badira.

Aurreko hori gorabehera, segidan aipatzen diren laguntzak %100 salbuetsiko dira, edozein dela ere hartzailea.

- Azaroaren 28ko 116/2000 Foru Dekretuak aipatzen dituen ingurune zokoratuendako konpentsazio-ordainak; nekazaritzako ustiategiendako, landa-inguruneak garatu eta egokitzeko eta Arabako Lurralde Historikoko basogintzarako laguntzak ezartzen dituen laguntzak.

- Nekazaritza eta ingurumeneko laguntzak, 27ko 21/2001 Foru Dekretuak aipatzen dituenak –nekazaritza eta ingurumeneko laguntzak onartzen ditu-."

2. artikulua.- Nekazaritzarekin lotutako Zerga Neurriei buruzko ekainaren 9ko 17/1997 Foru Araua aldatzea.

Artikulu berri bat eransten zaio Nekazaritzarekin lotutako Zerga Neurriei buruzko ekainaren 9ko 17/1997 Foru Arauari, 9 bis artikulua, hain zuzen ere; hona hemen hitzez hitz:

"9 artikulua bis.- Nekazaritza, abeltzantza edo basogintza jarduerara atxikitako lursailak eskualdatzea.

1.- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako, eta horien baitan ekonomia-jardueren errendimendu garbia zehazte aldera, ekonomia-jarduera horietara atxikitako ondare elementuetatik sortutako ondare-galera edo irabaziak kontuan hartuko dira eta Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauan xedatutakoaren arabera zenbatuko dira.

Halaber, aipatutako Foru Arau horretako 22. eta 52. artikuluek aparteko irabazien berrinbertsio-kasuetarako eta berrinbertsioen salbuespen-kasuetarako xedatutakoa aplikatuko zaie.

Hala balegokio, artikulu honetan ezarritakoa aplikatzearen ondorioz sortzen diren irabazi edo galerak gehitu edo kendu egingo zaizkio ekonomia-jaurdueraren errendimendu arruntari, errendimendu garbia zehazte aldera.

2.- Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, dela borondatez edo behartuta, nekazaritza, abeltzantza eta basogintza jardueretara atxikitako lursailak eskualdatzen direnean, eskuratzailea Lurralde Administrazio Publiko batek edo batzuek beren esku duten sozietate bat izanez gero, zergadunak aukera egin ahal izango du: zerga ordaintzerakoan, ekonomia-jarduerara atxikitako elementuendako ezarritako xedapenak aplikatu ala jarduera horretara atxiki gabeko elementuendako ezarritakoak aplikatu.

3.- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaten 16ko 35/1998 Foru Arauak artikulu honetan xedatutakoa osatzen duela ulertuko da".

INDARGABETZE XEDAPENA

Indargabetuta gelditzen da xedapen orokor honetan ezarritakoaren aurka doan maila bereko edo beheragoko xedapen oro.

AZKEN XEDAPENA

Lehena.- Baimena ematen zaio Arabako Foru Aldundiari xedapen orokor hau garatu eta aplikatzeko behar adina xedapen eman dezan.

Bigarrena.- Foru Arau hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta 2000ko urtarrilaren 1az gero izango ditu ondorioak.

Vitoria/Gasteiz, 2001eko ekainaren 14a.– Lehendakaria, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

Por otra parte se considera conveniente permitir a los contribuyentes que transmitan terrenos afectos a su actividad agrícola, ganadera o forestal, y siempre que se reúnan determinados requisitos, a optar entre aplicar el régimen jurídico previsto para la enajenación de elementos afectos a dicha actividad o por aplicar las reglas dispuestas para la transmisión de elementos no afectos.

Artículo 1.- Modificación de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas

Se modifica la letra u) del artículo 9 de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas que quedará redactada de la siguiente forma:

"u) Estarán exentas en un 50% las ayudas financiadas, total o parcialmente, con cargo al Fondo Europeo de Orientación y Garantía Agraria, siempre que su percepción se efectúe a través de explotaciones que tengan la calificación de prioritarias.

No obstante lo anterior, estarán exentas en el 100%, cualquiera que sea su preceptor, las ayudas siguientes:

- Indemnizaciones compensatorias de zonas desfavorecidas a que se refiere el Decreto Foral 116/2000, de 28 de noviembre, que establece las ayudas a las explotaciones agrarias, al desarrollo y adaptación de las zonas rurales y a la silvicultura en el Territorio Histórico de Álava.

- Ayudas agroambientales a las que se refiere el Decreto Foral 21/2001, de 27 de febrero, por el que se aprueban las ayudas agroambientales."

Artículo 2.- Modificación de la Norma Foral 17/1997, de 9 de junio, sobre Medidas Fiscales relacionadas con la Agricultura.

Se añade un nuevo artículo, el 9 bis, a la Norma Foral 17/1997, de 9 de junio, sobre Medidas Fiscales relacionadas con la Agricultura, que tendrá la siguiente redacción:

"Artículo 9 bis.- Transmisión de terrenos afectos a la actividad agrícola, ganadera o forestal.

1. A efectos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas para la determinación del rendimiento neto de las actividades económicas se incluirán las ganancias o pérdidas patrimoniales derivadas de los elementos patrimoniales afectos a las mismas, que se cuantificarán conforme a lo previsto en la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades.

Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en los artículos 22 y 52 de la citada Norma Foral, para los supuestos de reinversión de beneficios extraordinarios y exención por reinversión.

En su caso, las ganancias o pérdidas resultantes de la aplicación de lo dispuesto en este artículo se sumarán o restarán al rendimiento ordinario de la actividad económica para la determinación del rendimiento neto.

2. No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, en el caso de transmisión, tanto voluntaria como forzosa, de terrenos afectos a la actividad agrícola, ganadera o forestal, siempre que el adquiriente sea una Administración Pública Territorial o una sociedad cuyo capital social se encuentre participado en su totalidad por una o varias de dichas Administraciones, el contribuyente podrá optar entre tributar aplicando las disposiciones establecidas para los elementos afectos a la actividad económica o por aplicar las disposiciones referidas a los elementos no afectos a dicha actividad.

3. Lo dispuesto en este artículo se entenderá complementado con lo establecido en la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas."

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en la presente disposición general.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.- Se autoriza a la Diputación Foral de Álava para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de esta disposición general.

Segunda.- La presente Norma Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava y surtirá efectos desde el 1 de enero de 2000.

Vitoria-Gasteiz, a 14 de junio de 2001.– La Presidenta, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**4.027**

**Iragarkia**

Arabako Biltzar Nagusien Mahaiak egindako 92. bileran, 20001eko ekainarren 18an, Foru Araugaia aurkeztu du, zeinaren bidez hainbat zergen legeria aldatzen den. Presazko prozeduraz bideratu dadila eskatu du.

Arabako Biltzar Nagusien Iharduera Arautegiko 130. artikuluari, zazpi eguneko epea zabaltzen da biltzarkide jaun-andreek edo biltzarkide taldeek nahi dituzten emendakinak aurkezteko, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Batzorderi idazki arrazoitua bidaliz.

Araugaiaren testua Arabako Biltzar Nagusien Idazkaritza Nagusian dago biltzarkide jaun-andreen eta biltzarkide taldeen esku.

Vitoria/Gasteiz, 2001eko ekainaren 18.ean.– Lehendakaria, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## JUNTAS GENERALES DE ALAVA

**4.027**

**Anuncio**

La Mesa de estas Juntas Generales de Álava, en su sesión número 92, celebrada el 18 de junio de 2001, ha calificado el Proyecto de Norma Foral por la que se modifica la legislación de varios tributos. Se solicita la adopción del trámite por el procedimiento de urgencia.

De conformidad con el artículo 130 del Reglamento de Funcionamiento de las Juntas Generales de Álava, se abre un período de siete días durante el cual los Procuradores o Grupos Junteros a quienes interese pueden formular las enmiendas que crean convenientes, mediante escrito motivado a la Comisión de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.

El texto del Proyecto se encuentra a disposición de los señores Procuradores y Grupos Junteros en la Secretaría General de estas Juntas Generales de Álava.

Vitoria-Gasteiz, a 18 de junio de 2001.– La Presidenta, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**4.028**

**Iragarkia**

Arabako Biltzar Nagusien Mahaiak egindako 92. bileran, 2001.eko Ekainaren 18.ean, Foru Araugaia aurkeztu du, zeinaren bidez hainbat aldaketa sartzen diren Sozietateen gaineko Zergan. Presazko prozeduraz bideratu dezatela eskatu du.

Arabako Biltzar Nagusien Iharduera Arautegiko 130. artikuluari, zazpi eguneko epea zabaltzen da biltzarkide jaun-andreek edo biltzarkide taldeek nahi dituzten emendakinak aurkezteko, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Batzorderi idazki arrazoitua bidaliz.

Araugaiaren testua Arabako Biltzar Nagusien Idazkaritza Nagusian dago biltzarkide jaun-andreen eta biltzarkide taldeen esku.

Vitoria/Gasteiz, 2001.eko ekainaren 18.ean.– Lehendakaria, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## JUNTAS GENERALES DE ALAVA

**4.028**

**Anuncio**

La Mesa de estas Juntas Generales de Álava, en su sesión número 92, celebrada el 18 de junio de 2001, ha calificado el Proyecto de Norma Foral por la que se introducen diversas modificaciones en el Impuesto sobre Sociedades. Se solicita la adopción del trámite por el procedimiento de urgencia.

De conformidad con el artículo 130 del Reglamento de Funcionamiento de las Juntas Generales de Álava, se abre un período de siete días durante el cual los Procuradores o Grupos Junteros a quienes interese pueden formular las enmiendas que crean convenientes, mediante escrito motivado a la Comisión de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.

El texto del Proyecto se encuentra a disposición de los señores Procuradores y Grupos Junteros en la Secretaría General de estas Juntas Generales de Álava.

Vitoria-Gasteiz, a 18 de junio de 2001.– La Presidenta, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**4.029**

**Iragarkia**

Manuel Ibarrondo Aguirregabiria, Eusko Alkartasuna Biltzarkide Taldea -koak Osoko Bilkuran eztabaidatzeko mozioa, zeinaren bidez probintzian dauden barrerarik gabeko trenbide-pasagune guztiak kentzea proposatzen den.

Mozio hau Arabako Biltzar Nagusien Iharduera Arautegiko 156. artikuluan aipatuetako bat da, eta beraz, artikulu horri jarraituz, zazpi eguneko epea zabaltzen da biltzarkide taldeek Mozio horretarako emendakinak aurkez ditzaten.

Vitoria/Gasteiz, 2001.eko ekainaren 18.ean. Lehendakaria, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## JUNTAS GENERALES DE ALAVA

**4.029**

**Anuncio**

Manuel Ibarrondo Aguirregabiria, Portavoz del Grupo Juntero Eusko Alkartasuna, presenta Moción para debate en Pleno por la que se propone la supresión de todos los pasos a nivel sin barreras existentes en la provincia.

La Moción es de las señaladas en el artículo 156 del Reglamento de Funcionamiento de estas Juntas Generales de Álava, por lo que de acuerdo con el citado artículo, se abre un período de siete días durante los cuales los Grupos Junteros podrán presentar enmiendas a la citada Moción.

Vitoria-Gasteiz, a 18 de junio de 2001.– La Presidenta, XESQUI CASTAÑER LOPEZ.